



# Andikoaparizio etxebizitza

Aldaerak: Aparizio / Sayuena

Ahozkoa: Aparicio / Saidxúena / Pastóriena



43° 11' 27"

2° 35' 10"

Berriz Iruduan / T. Angoitia

Baserri honen jatorria XVI. mendean kokatzen den arren, Bizkaiko su-erroldean aurkitu ditugu lehendabiziko aipuak: *Aparicio* (1704) eta *Andicona Aparicio* (1745). XIX. mendean, *Andiconagoitia Aparicio* (1826, BAHP, A282/15) mantentzen da, eta hori aurkituko dugu ia dokumentu guztietan, nahiz eta XX. mendeko zenbait dokumentutan bakarrik *Aparicio* (1967, BUA, CE) agertu. Andikoatarren, eta, oro har, berriztarren artean, *Saidxúena* edo *Pastóriena* moduan ezagutu izan da baserri hau. Ezer gutxi dakigu *Saidxúena* izengoitiaren gainean, dokumentazioan behin baino agertzen ez delako: *Aparecio Zañuena* (1905, BUA, 40).

Baserri-etxe handia da, bizitza bikoa. Ingu-ruko beste etxe batzuen antzera, XVI. mendeko horma ederra gorde du, silarri tipikoekin

altxatua, eta bertako leiho baten moldura eta puntu Erdiko sarrera-arkua ere mantendu dira. Hala ere, gaur bere osotasunean daukan itxura, XVII. mendean nagusitu zen estilokoa da, hau da: harrizko bi gorputz alboetan eta erdian, barrurago atarte zabala duen beste bat, eta, gainean, egurrezko egitura, adreiluzko hormekin tartean. Aldamenetako gorputzak harlangaitzez eginda daude, nahiz eta kantalak eta leiho-ertzak harlanduzkoak izan. Atarteari dagokionez, esan beharra dago obrak egin direla oraintsu, baina bistan dauka jatorrizko dotorezia. Izan ere, Berrizko beste baserri batzuetan legez, toskanar koloma erabili zuten dintelari eusteko, eta bertan, orduko data du inskribatuta: "1698 AÑO". Teilatua bi isurkitakoa da.